Antzina, udaberrian, Zeberioko artaldeak Santo Tomas elizako arkupean biltzen ziren, eta, parrokoaren bedeinkapenaren ostean, hainbat artzainen gidaritzapean abiatzen ziren Arrabako larreetarantz. Ibilbideak bidaia haren zati bat egiteko aukera eskainiko digu, Zeberioko ondarearen zenbait altxorrez gozatzen dugun bitartean. PR-BI 11 ibilbidearen saihesbideetako bat da, hain zuzen ere.





Olabarrietako Santo Tomas

Ermitabarri auzotik abiatu eta Gezalarantz joango gara. 300 metrora, gutxi gorabehera, Uratsara eramango gaituen bidezidorra aurkituko dugu ezkerraldean. Uratsa ur sulfurosoak dituen iturri bitxia da, eta inguruko bizilagunak sarritan joaten dira bertara. Bidera itzuli eta Gezala ibaiaren albotik egingo dugu aurrera, harik eta lehenengo auzora heldu arte. Bertan, sorginkeriei buruzko istorio zaharrak ezkutatzen dituen Gezalabekoa baserriaren edertasuna nabarmendu beharra dago (XVI. mendekoa da).Hemendik, Gezala auzoko azken gunea den Bainuetxerantz joango gara. Biziguneak, gaur egun etxebizitza den antzinako bainuetxeari zor dio izena. Izan ere, 1868. urtean eraiki zuten, Gezalako iturburu gaziak ezaugarri sendagarriak zituen-eta.

Bidean aurrera, haltzadien eta pinu-sailen artean, lasai-lasai igoko gara Gezala errekaren paretik, harik eta bidegurutzera heldu arte. Ezkerreko mendi-bideak Bikotzganen sartzeko errepidearen alboan dagoen Laureta baserriraino eramango gaitu. Errepidera iritsi barik, baserria inguratu eta mendi-bidetik jarraituko dugu, Gorbeiako parke naturalaren mugan dauden Aibelabe, Garaigorta... mendien ikuspegi zoragarriez gozatzen dugun bitartean. Mendi-bideotan, eskualdean bizi den zerbido txikiaren, orkatzaren, aztarna ugari daude ikusgai.

Mendi-bideak Murga mendia inguratuko du eta Sarasola auzorantz jaitsiko da, Dimako eta Urkiolako parke naturalaren ikuspegiaz gozatzen dugun bitartean. Tarte horretan, saihesbideak Zeberion geratzen diren kirikinusi bakarrenetara eramango gaitu.

Baserrien, hariztien eta meten artean, Sarasola gurutzatu eta artez-artez jarraituko dugu, harik eta beste bidegurutze batera iritsi arte. Ezkerreko mendi-bideak Kareaga auzora eramango gaitu, baina guk eskuinekoa hartuko dugu. Pinudi gazteak eta zaharrak zeharkatu ondoren, Argiñao auzotik jaisten den ibilbide nagusira helduko gara (PR-BI 11ra). Larrabarren baserriaren albotik igaroko gara, Ibarrondo ibaira iristeko. Ibaia zeharkatutakoan, ibilguaren paretik joango gara, Isasi auzotik igaro ostean berriro ere Ermitabarrira heltzeko.



Urkiola eta Dima de Murgatik

Antiguamente, al llegar la primavera, los rebaños de Zeberio se reunían en el pórtico de la iglesia de Santo Tomás y, tras la bendición del párroco, partían guiados por numerosos pastores hacia las campas de Arraba. Este itinerario nos permite realizar parte de aquel viaje, mientras nos deleita con algunos de los tesoros que forman parte del patrimonio de Zeberio. Es una de las variantes del recorrido PR-BI 11.

Partimos del barrio de Ermitabarri en dirección a Gezala. A unos 300 metros, encontramos a la izquierda un pequeño sendero que nos lleva a Uratsa, curiosa fuente de aguas sulfurosas muy frecuentada por los vecinos. Regresamos al camino para continuar caminando junto al río Gezala, hasta llegar al primer núcleo rural. En él, destaca por su belleza Gezalabekoa (s. XVI), caserío que guarda viejas historias sobre brujería.



Caserío Gezalabekoa

Continuamos hacia el último núcleo de Gezala, Bainuetxe. Este debe su nombre a la vieja casa de baños, actual vivienda, construida en 1868 aprovechando las propiedades curativas del manantial salino de Gezala. Seguimos ascendiendo suavemente paralelos al arroyo de Gezala, entre alisedas y plantaciones de pinos, hasta llegar a un cruce de caminos. Tomamos la pista de la izquierda que nos acercará hasta el caserío de Laureta, junto a la carretera de acceso a Bikotzgane. Sin llegar a pisarla, bordeamos el caserío y continuamos por la pista mientras disfrutamos de unas buenas vistas de los montes Aibelabe, Garaigorta... ya en el Parque Natural de Gorbeia. En estas pistas podemos ver numerosas huellas de corzo, pequeño cérvido que habita en la zona.

La pista bordea el monte Murga y comienza a descender hacia el barrio de Sarasola, mientras disfrutamos de una bella panorámica de Dima y el Parque Natural de Urkiola. En este tramo, un desvío nos invita a visitar unas antiguas ericeras, de las pocas que quedan en Zeberio.



Cruzamos Sarasola entre caseríos, robles y almiares, para continuar recto hasta un nuevo cruce. La pista de la izquierda nos acerca al barrio de Kareaga, pero nosotros cogemos la de la derecha, cruzando jóvenes y viejos pinares hasta llegar al recorrido principal (PR-BI 11) que desciende del barrio de Argiñao. Pasamos junto al caserío Larrabarren para llegar al río Ibarrondo. Una vez atravesado, caminaremos paralelamente al cauce hasta llegar nuevamente a Ermitabarri, pasando por el barrio de Isasi.

| Ur, lur eta egur | PR-BI 11.1 | Agua, tierra y madera |
|---|---|---|
| Ibilbidearen hasiera | Ermitabarri | Inicio del recorrido |
| Ibilbidearen amaiera | Larrabarren | Fin del recorrido |
| Iraupena, gutxi gorabehera | 3 ord | Tiempo estimado |
| Ibilbidearen luzera | 11,75 Km | Longitud del recorrido |
| Gehienezko malda | 350 m | Desnivel máximo |
| Zailtasun maila | Ertaina-Altua / Media-Alta | Dificultad |




Interes puntuak

Olabarrietako Santo Tomas eliza, Uratsa iturria, Ermitabarriko hariztiak, Gezala erreka, Gezalabekoa baserria, bainuetxea, haltzadiak, kirikinusiak, Sarasola auzoa, Kareaga auzoa...

Puntos de interés

Iglesia de Santo Tomás de Olabarrieta, fuente de Uratsa, robledales de Ermitabarri, río Gezala, caserío de Gezalabekoa, casa de baños, alisos, ericeras, barrio de Sarasola, barrio de Kareaga.



Haltza
Aliso
(Alnus glutinosa)



Orkatza
Corzo
(Capreolus capreolus)

Irudiak: A. Domínguez




Badakizu...

...gaztainak oinarrizko elikagaiak zirela antzina? Izan ere, garia, artoa eta patata iritsi arte, ogia bera ere gaztainaz egiten zuten.
Gaztainak behar den moduan gordetzeko, harrizko despentsa txikiak eraikitzen zituzten. Gaur egun, kirikinusi izenaz ezagutzen direnak. Izan ere, fruituak antzekotasun handia du gure lurraldean bizi den animalia batekin, kirikinoarekin, alegia.

¿Sabias que...

...las castañas fueron base de la alimentación en épocas pasadas? Y es que anterior a la llegada del trigo, el maíz y la patata, hasta el pan se hacia con castañas.
Para conservarlas construían pequeñas despensas de piedra que hoy en día conocemos como ericeras, por la similitud que el fruto tiene con un pequeño animal que habita en nuestro territorio, el erizo.

ZEBERIO

PR-BI 11.1



# ZEBERIO

## ERMITABARRI-GEZALA-LAURETA-SARASOLA-ERMITABARRI